

# GIZONDUZ

---

# EKIMENA

---

# 2014ko

---

# TXOSTENA

---



# AURKIBIDEA

## 1 SARRERA

## 2 2014AN EGINDAKO JARDUERAK

### 2.1 WEBGUNEA

### 2.2 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA

### 2.3 GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0 PROIEKTUA

### 2.4 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-JARDUEREN HEDAPENA

### 2.5 AHOLKULARITZA

# 1 SARRERA

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatua, eta helburu du gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziatzea, eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzea.


Helburuak **Gizonduz ekimena sortzen duen agirian** zehazten dira, eta honako hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

Gizonduz ekimenaren barruan egindako jarduerak dokumentu hauetan daude jasota: **Gizonduz ekimenaren memoria: 2007-2010 epealdia, 2011n egindakoen memoria. Gizonduz ekimena eta 2012an egindakoen memoria. Gizonduz ekimena eta 2013an egindakoen memoria.**

## 2 2014an EGINDAKO JARDUERAK

### 2.1 WEBGUNEAK




2008ko apirilean, berdintasunaren aldeko gizonen buruzko webgune espezializatu sortu genuen ([www.euskadi.net/gizonduz](http://www.euskadi.net/gizonduz)), eta hori kudeatzen jarraitu genuen 2014an. Webgunean, ekimenari buruzko informazio ugari aurki daiteke, hainbat euskarritan, bai eta atal hauek ere: elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietarako loturak, “euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka” eskutitzari atxikitzeko eremua, berdintasunezko aitatasunari buruzko atala, etab.

2014. urtean 20.721 bisita egin ziren eta 38.576 orri begiratu ziren.

2014an, Euskal Autonomia Erkidegotik 8.378 bisita egin ziren, eta honela banatu ziren:

### Euskal Autonomia Erkidegoa bisitak

---



% 51,36 Bilbotik egin ziren, % 31,33 Gasteiztik eta % 17,31 Donostiatik.

23.271 bisitetatik, % 1,33 Iruñetik egin ziren. Espainiako Estatutik ere egin ziren bisitak; % 7,53 Madrildik eta % 4,05 Bartzelonatik.

Estatistika-txostenen arabera, webguneak bost kontinenteetatik jaso ditu bisitak. Herrialdeka, Gizonduz-en webgunea bisitatu zutenetik % 4,33k Mexikotik egin zuen, % 1,39k Kolonbiatik, % 0,47k Frantziatik eta % 0,47ek Estatu Batuetatik.

Erabiltzaileek webgunea bisitatzeko hautatutako hizkuntza: % 86,33k gaztelaniazko bertsioa erabili zuen, % 4,18k euskarazkoa eta % 4,92k ingelesezkoa.

#### 2.1.1 Bloga

Gizonduz ekimenaren blogean, eztabaidak, albisteak eta informazioa proposatzen dira. Herritarrek ere parte har dezakete, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitateekin lotutako gaiei buruzko iritzia, gogoetak eta iruzkinak aditzera emateko.

2014ko urtarriletik abendura, 131 sarrera argitaratu ziren, honela sailkatuta: erakunde-ekimenak, gizonezkoen indarkeriak, emakumeen aurkako indarkeria, gizonen taldeak eta gizonak eta berdintasuna. Gizonduz ekimenaren bloga 2008ko uztailean abiarazi genuenetik, 820 sarrera argitaratu dira.



## 2.1.2 Elkarrizketak

Atal horretan, berdintasunarekin zerikusia duten pertsoneri egindako elkarrizketak biltzen ditugu. 2014an, hauek elkarrizketatu genituen:

- **Ana Gallego González**, Giza-baliabideen arduraduna Ingeteam Power Technology enpresan (Zamudio).
- **Ana Agirre Zurutuza**, Eusko Jaurlaritzako Justiziako sailburuordea.
- **Jokin Azpiazu Carballo**, soziologoa eta aktibista soziala.
- **Teresa Tornis Martín**, Soziologian doktorea eta Bartzelonako Unibertsitate Auto-nomoko irakaslea.
- **Juan José Ibarretxe**, Lehendakaria.

## 2.1.3 Sare sozialak


2009tik hasita, Gizonduz Facebook-en ere dago. Gizonduz-en Facebook-eko orria atsegin dutenen kopurua 5.100 ere izan zen 2014an. Gainera, orri hori da, Gazte Aukera-ren orriaren atzetik, Eusko Jaurlaritzakoen artean Facebook-en lagun gehien dituenena. 2014an, 5041ean lagun izan zituen batez beste, % 33 emakumeak eta % 61 gizonak. 443 mezu argitaratu ziren, egunean batez beste 340 pertsona sartu ziren orrian eta mezu bakoitza 710 pertsonak irakurri zuten batez beste.

Gizonduz ekimenak YouTube eta Vimeo kontuak ere ditu. Bi zerbitzuetan, berdintasunarekin eta maskulinitateekin erlazionatutako konferentzien, tailerren, iragarkien edo ikus-entzunezko edukien bideoak daude jasota. Gizonduz ekimenak 16 bideo dauzka Vimeo-n, eta 164 aldiz ikusi ziren 2014an. YouTube-n, aldiz, 20 bideo dauzka, eta 1.436 aldiz erreproduzitu ziren 2014an.

## 2.2 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA

2009ko martxoan, Gizonduz ekimenaren prestakuntza- eta sentsibilizazio-programaren lehenengo edizioa jarri genuen abian.


Gizonduz ekimenaren prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa abian jarri zenetik 2014ko abendura arte, ikastaroetan, aurrez aurrekoetan nahiz sarean, 9.073 lagun izan dira guztira: 4.806 gizon (% 52,9) eta 4.210 emakume (% 47,1).



### 2.2.1 Aurrez aurreko ikastaroak


2009tik 2014ra, biak barne, 349 aurrez aurreko ikastaro egin dira (60 2014an). 7.506 lagunek parte hartu dute horietan: 4.286 gizonak eta 3.220 emakumeak.

Ikastaro horiek honela banatzen dira:



Urtea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2009	241	512	753
2010	900	895	1795
2011	638	821	1459
2012	677	768	1445
2013	389	628	1017
2014	375	662	1037
<b>GUZTIRA</b>	<b>3220</b>	<b>4286</b>	<b>7506</b>

Ikastaro motari dagokionez, 2009tik 2014ra, biak barne eta emandako orduen arabera taldekatuta, ikastaroen banaketa honako hau da:



Ikasleen % 40,5ek 2-3 orduko ikastaroetan parte hartu zuen. 4 eta 10 ordu arteko ikastaroetan % 47,7k hartu zuen parte, eta hamar orduetik gorakoetan % 11,8k.


2014an, gizon-ikasle gehien dituzten ikastaroak indartu dira eta garrantzi handiagoa eman zaie beren lanagatik edo gizartean betetzen duten rolagatik eragin biderkatzaileria izan dezaketen pertsonentzako ikastaroei, parte-hartzaile bakoitzak ikasitako edukia eta egindako gogoetak lan-arloan edo jendartearen baliatu ditzan. 2014an finkatu egin da ikasle-kopurua, baina handitu egin da gizon kopurua: ikasleen % 64 gizonak izan dira eta % 36 emakumeak.

Nabarmen murriztu da bi-hiru orduko ikastaro kopurua 2014an.

## 2014ko AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Ikastaro motak, iraupenaren arabera	Ikastaroen iraupena, guztira (ordutan)	Ikasleak, guztira	Ikasleen %a	Gizonak	Emakumeak
2-3 ordu	16	96	9%	78	18
4-9 ordu	151	636	61,30%	436	200
10 ordu edo gehiago	239	305	23%	148	157
<b>Guztira</b>	<b>406</b>	<b>1.037</b>	<b>% 100</b>	<b>662</b>	<b>375</b>

## 2013ko AURREZ AURREKO IKASTAROAK



Erakunde eskatzaileen arabera, hauek izan ziren aurrez aurreko ikastaroak:

### Gasteizko Udalarekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroen koadroa

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4



Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-ordua
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala	Maskulinitateak, generoa eta gizonen indarkeria	Udaltzaingoa	4
Gasteizko Udala. Gizartean esku hartzea	Gizonak, berdintasuna, gizonen indarkeria eta emakumeen aurkako indarkeria	Bertako langileak	12
Gasteizko Udala. TUVISA	Gizonak, berdintasuna, arriskuak eta laneko segurtasuna	Bertako langileak	12
Gasteizko Udala. TUVISA	Gizonak, berdintasuna, arriskuak eta laneko segurtasuna	Bertako langileak	12
<b>GUZTIRA</b>			<b>96</b>

### Sindikatuekin eta enprekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroen koadroa

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-ordua
Comisiones Obreras	Maskulinitateak, berdintasuna lanean eta laneko sexu-jazarpenaren prebentzioa	Sindikatuetao ordezkariak	5
Comisiones Obreras	Gizonak, berdintasuna, maskulinitateak eta ekintza sindikala	Euskadiko zuzendaritza	5
Ingeteam Power Technology	Maskulinitateak, generoa eta laneko berdintasuna	Langileak	2.5
Ingeteam Power Technology	Maskulinitateak, generoa eta laneko berdintasuna	Langileak	2.5
Ingeteam Power Technology	Maskulinitateak, generoa eta laneko berdintasuna	Langileak	4.5
ESK	Laneko sexu-jazarpena	Sindikatuetao ordezkariak	10
ESK	Laneko sexu-jazarpena	Sindikatuetao ordezkariak	10
ESK	Laneko sexu-jazarpena	Sindikatuetao ordezkariak	10
<b>GUZTIRA</b>			<b>49.5</b>

## Erakunde publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroen koadroa

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
Ermuko Udala	Gizonak, berdintasuna, maskulinitateak eta indarkeria maskulinoak	Udaltzaintzat	8
Sestaoko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Cáritaseko boluntarioentzat	4
Santurtziko udala	Gizonak eta berdintasuna	Biztanleentzat, oro har	2
Zarauzko Udala	Gizonak, maitasuna eta berdintasun-harremanak	Biztanleentzat, oro har	3
UPV/EHU Berdintasunerako Zuzendaritza	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Irakasleentzat	15
UPV/EHU Lan Harremanen Eskola	Maskulinitatea eta lan-arriskuen prebentzioa	Ikasleentzat	4,5
UPV/EHU Gasteizko Irakasle Eskola	Gizonak, berdintasuna, maskulinitateak eta hezkuntza	Ikasleentzat	10
Emakunde	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Biztanleentzat, oro har	20
Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Biltzen	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Elkarteburuentzat	10
Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Biltzen	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Elkarteburuentzat	12
Eusko Jaurlaritza. Justizia Saila. Ibaiondo adingabeen zentroa	Gizonak, berdintasuna, maskulinitateak eta kriminaltasuna	Zentroko langileentzat	10
Eusko Jaurlaritza. Trafikoko Zuzendaritza	Gizonak, berdintasuna, arriskuak eta bideko segurtasuna	Bertako langileentzat	10
Eusko Jaurlaritza. Gazteen Euskal Behatokia	Gazteak, berdintasuna eta kirol jarduera	Biztanleentzat, oro har	15
Eusko Jaurlaritza. Trafikoko Zuzendaritza	Gizonak, berdintasuna, arriskuak eta bideko segurtasuna	Bertako langileentzat	10
Eusko Jaurlaritza. Trafikoko Zuzendaritza	Gizonak, berdintasuna, arriskuak eta bideko segurtasuna	Bertako langileentzat	10
Eusko Jaurlaritza. Trafikoko Zuzendaritza	Gizonak, berdintasuna, arriskuak eta bideko segurtasuna	Psikologoentzat	12
Bizkaiko Foru Aldundia	Gizonak, erantzunkidetasuna eta berdintasun-harremanak	Bertako langileentzat	12

**GUZTIRA**

**149**

## Hezkuntza-entitateekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
Fadura Institutua	Gizonak, berdintasuna eta kirola	Ikasleak	6
Fadura Institutua	Gizonak, berdintasuna eta kirola	Ikasleak	6
Unamuno institutua	Gizonak eta berdintasuna	Irakasleak	2
Dolores Ibarruri institutua	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Irakasleak	4
Eskoriatzako Irakasle Eskola	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Ikasleak	4
Eskoriatzako Irakasle Eskola	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Ikasleak	4
Itaka-Escolapios	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Monitoretza	6
<b>GUZTIRA</b>			<b>32</b>

## Elkarteeekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Erakundea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
Norbera	Gazteak eta berdintasuna	Bertako langileak	10
Nerbioi Ibarreko Gurutze Gorria	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Basauriko ikastetxe publikoko barnekoak	2
Zipriztintzen Ermuko Gizon taldea	Gizonak, maitasuna eta berdintasuna	Taldekieak	4
Zubietxe	Gizonak, arriskuak eta droga-mendekotasuna	Bertako langileak	5
Gakoa	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Bertako langileak	5
Bizkaiko Psikologoien Elkargo Ofiziala	Gizonak, berdintasuna eta osasuna	Jendea orokorrean	15
Iresgi	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Martuteneko ikastetxe publikoko trebatzaileak	8
Iresgi	Gizonak, berdintasuna, maskulinitateak eta bideko segurtasuna	Barnekoak	4
Iresgi	Gizonak, berdintasuna, gizonen indarkeria eta emakumeen aurkako indarkeria	Barnekoak	4
<b>GUZTIRA</b>			<b>57</b>

## Aurrez aurreko ikastaroen balorazioak

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako partaideek emandako balorazioen batez bestekoak ageri dira, 6 puntuko baremoa oinarri hartuta.

Ikastaroaren balorazio orokorra	4,97
Ikasgaiaren inguruan lehendik zeneuzkan ezagutzak	3,58
Edukia	4,68
Hizlaria	5,11
Dinamizazioa	4,87
Taldearen partaidetza	4,61
Antolaketa	4,71
Eremua	4,58
Erabilitako materialak	4,65
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako ? (%)	96%
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako? (%)	91%

Aurreko edizioetan bezala, inkestetako galdera irekiek kalitatearen inguruko balorazioa agertzen dute; adibidez, ikastaroen alderdi positiboak aipatzen dira, esate baterako, errealitateari begiratzeko modu berriak proposatzen dituztela, genero-ikuspegitik errealitate hori hobeto ezagutzeko aukera ematen dutela. Aurkeztutako eduki teorikoen eta eguneroko bizitzaren zein bizitza pertsonalaren arteko lotura ere nabarmentzen da. Ikastaroen dinamismoa eta horietako partaidetza azpimarratzen da. Ikasle gizonen eta emakumeen arteko iritziak trukatzeko gunea izateari garrantzia ematen zaio.

Hobetzeko proposamenen artean, oraindik ere ikastaroari denbora gehiago eskaintzea da gehien aipatutakoa. Lau orduko ikastaroen kasuetan bezala, luzeagoei buruz ere (6, 10, 12 edo 15 ordukoetan) gauza bera esaten dute. Beste proposamen bat da ikastaroaren alderdi praktikoa handitzea.

Ikasleek sakonago ezagutu nahi lituzketen alderdiak beren esku-hartzeko esparru profesionalarekin, adingabeen hezkuntzarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin lotura zuzena dutenak dira.

### 2.2.2 Jardunaldietan eta kongresuetan parte hartzea

Bestalde, ekimena hedatze aldera, hainbat komunikabidetan izan gara, eta sentsibilizazio-jarduera ugaritan parte hartu dugu eta horietan lankidetzan ere aritu izan gara. Hona hemen adibiderik aipagarrienak:

- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak antolatutako “Bide-segurtasuna eta Generoa” jardunaldia.
- Maskulinitateei eta Giza Garapenari buruzko I. Ipar-Hegoalde Topaketa, Birbanak, Deustu-San Inazioko Modulu Psikosozialak eta Garapenerako Lankidetzarako Berdintasunaren aldeko Gizonen Koordinakundeak antolatua.

### 2.2.3 Internet bidezko ikastaroak

Gizonduz ekimenaren sentsibilizazioko eta prestakuntzako sareko ikastaroak martxan jarri zirenetik, bi ikastaro mota eskaini dira. Lehen, Berdintasunari buruzko gizonent-


zako sareko sentsibilizazio-ikastaro oinarritzkoa da; 8 ordukoa da, eta Gizonduz-en web-orrian zuzenean jarrai daiteke. Bigarrena, eduki gehiago eta iraupen handiagoa da:Gizonei, berdintasunari eta maskulinitateei buruzko sareko ikastaroa; 60 orduko iraupena du.

60 orduko prestakuntza-ikastaroan, eskaria eta eskaintza pixkanaka handituz joan dira. 8 ordukoaren kasuan, berriz, nabarmen jaitsi da eskaria.

### 2.2.3.1 Sareko sentsibilizazioa

Ikastaro honetan, alderdi ugari lantzen dira: genero-desberdintasunen jatorria, sexua-ren araberako rolek eta estereotipoek sozializazioan duten eragina, eredu maskulinoen berrikuspena, norberaren eta gainerako pertsonen zainketak gizonen bizitzan duen garrantzia, gizonen parte-hartzea etxeko lanetan eta beste pertsona batzuen zainketan, sozializazio sexistak gizonengan ere eragiten dituen genero-arazoak, in-darkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan duen eragina eta abar.

Ikastaro hori 2009an jarri zen abian. 2009tik 2014ra arteko edizio guztietan 572 pertsonak hartu zuten parte (388 emakumek eta 184 gizonek).



2014an, 46 pertsonak amaitu zuten ikastaroa (24 emakumek eta 22 gizonek).

### Ikastaroaren gaineko balorazioa (sei puntutik)

	Batez- bestekoa	Gizonak	Emaku- meak
Ikastaroaren balorazio orokorra	4,56	4,55	4,57
Ikasgaiari buruzko ezagupenik ba al zenuen lehendik?	4,5	4,64	4,29
Ikastaroaren elementuak: Edukiak	4,29	4,2	4,43
Ikastaroaren elementuak: Erabilitako materialak	4,29	4,27	4,33
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako?	% 100	% 100	% 100
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako?	% 97	% 97,5	% 100

Ikastaroaren balorazio orokorra positiboa izan da (6tik 4,56). Ikastaroko edukiek ere balorazio ona jaso dute (4,29).

Azpimarratu beharra dago, partaide guztien iritziz (% 100), ikastaroa baliagarria izan dela euren bizitza pertsonalerako. % 97ren iritziz, baliagarria izan da ikastaroa euren bizitza profesionalerako.

46 pertsonak bakarrik egin dute ikastaroa. Bestalde, % 47,82 gizonak izan dira, hau da, aurreko urtearekin alderatuta, % 40 gehiago.

### 2.2.3.2 Sareko prestakuntza


Gizonduz-ek eskaintzen duen Internet bidezko 60 orduko ikastaroa 2009 irailaren 21etik abenduaren 21era bitartean egin zen aurrenekoz.

60 orduko sareko ikastaroaren eskariak gora eta gora egin du urtez urte: 2009an 79 parte-hartzaile zituen; 2014an, berriz, 213. Urtero geratzen dira ikastaroa egin ezinik pertsona asko, eskainitako lekuak betetzen direlako. Ikastaroa doakoa izatearen abantaila ageriko da, baina, era berean, oztopo ere izan daiteke parte-hartzaileek hasi eta buka egiteari dagokionez: izena ematen dutenen kopurua eta ikastaroa bukatzen dutenena ez datoz bat.

60 orduko sareko prestakuntza-ikastaroaren sei edizioetan, 995 lagunek parte hartu dute guztira: 393 gizonak (% 39,5) eta 602 emakumek (% 60,5).

2014an, 213 matrikula egin ziren guztira; horietatik 151 ikaslek bukatu zuten ikastaroa (% 71). 2013an, berriz, 210ek eman zuten izena, eta % 77,67k bukatu zuen. 2012, 2013 eta 2014ko edizioetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin elkarlanean, 100 leku gorde ziren **PREST GARA** prestakuntza-programako irakasleentzat. Hori dela-eta, emakume-ikasleen kopuruak gora egin du azken urteetan.

60 orduko sareko ikastaroa bukatzen duten ikasleak:



	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2009	14	27	41
2010	39	37	76
2011	29	52	81
2012	97	14	111
2013	131	36	167
2014	94	57	151
	<b>404</b>	<b>223</b>	<b>626</b>

Ikastaroaren edizio honetan, halaber, aurrez aurreko saio bat antolatu genuen Josetxu Riviere Arandarekin, «Gizonak, maitasun erromantikoa eta berdintasun-harremanak» izenekoa. 29 pertsona bertaratu ziren; baina ikasle guztiek Internet bidez jarraitzeko aukera izan zuten, zuzenean edota Irekia kanaleko grabazioaren bitartez.

Ikasleek ikastaroaren inguruan adierazitako iritziari dagokionez, ikasleen % 87k 8-10 puntu eman dizkie edukiei, erabilitako materialei eta egindako jardueri. Horrek esan nahi du oso pozik daudela ikastaroarekin.

### 2.3 «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA

2014an, «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» proiektuaren inguruko lanak egiten jarraitu genuen, EJE, SA sozietate publikoarekin lankidetzan. Proiektuaren xedea da nerabeen eta gazteen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatzea, eta, bereziki, gizon-nezkoena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten. Horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak baliatu dira, teknologia berrietan oinarritutakoak.

Proiektuak hiru plataforma ditu:

- Informazio-web edo erakustoki bat: proiektuaren garapenari eta faseei nahiz proiektuan lanean ari diren erakundeei buruzko informazioa ematen duena.
- Sareko abentura grafiko bat (bideo-joko bat). Abentura horretan, erabiltzaileei zenbait egoera proposatuko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta antzekoak izango dituzte, eta zenbait aukeraren artean erabaki bat hartu behako dute.
- Komunitate birtuala: nerabeen arteko komunikaziorako eta partaidetzazko guneak sortzeko.



## 2.4 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-JARDUEREN HEDAPENA

Aurreko urteetan bezala, 2014an ere Gizonduz-en ikastaroez gain, hedapena eman genien HAEEek berdintasunarekin lotuta eskaintzen dituen unibertsitateko masterrei, gradu-ondokoei, eta ikastaroei, bai eta Berdintasunerako Foroak antolatutako jardueri ere, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan gizonen partaidetza areagotzeko xedearekin. Buletin elektronikoaz eta Gizonduz-en webguneaz baliatu ginen horien guztien publizitatea egiteko.

## 2.5 AHOLKULARITZA

Azkenik, 2014an, 342 kontsultari erantzun genien, aurrez aurre nahiz posta elektronikoz edo telefonoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitasunekin lotutako beste gai batzuei buruz.





Manuel Iradier, 36  
01005 Vitoria-Gasteiz

**Tel** 945 01 67 00

**Mail** [emakunde.gizonduz@euskadi.eus](mailto:emakunde.gizonduz@euskadi.eus)